

EKINTZA HUMANITARIOARI BURUZKO LAN-DOKUMENTUAK

3. zk.

“Ekintza humanitarioaren eragileekiko begirada prospektiboa”

Aurkezpena

“Ekintza humanitarioaren eragileekiko begirada prospektiboa” lan-dokumentua aurkezten dizuegu. Ekintza humanitarioari buruzko bilduma osatzen duten bost koadernoetako hirugarrena da. Ekintza humanitarioa inplementatzen duten eragileez gain, gaur egungo erronkak eta joerak, kontzeptua eta mugak, zeharkakoak eta ikuspegiak, eta kontu-ematea lantzen dira.

Dokumentu hauetan, erakunde humanitarioek, emaileek, erakundeek eta ikerketa-komunitateak nazioarteko elkartasunaren eremu horretan eraginkortasuna eta kontu-ematea hobetzeko gaur egun dituzten erronkak eta eztabaida nagusiak daude bilduta.

Gainera, baliagarriak dira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (GLEA) 2017an abian jarritako Ekintza Humanitarioaren Estrategia lantzeko prozesurako. Estrategia horren azken helburua erronka horiei beren ezaugarriak eta ahalmenak kontuan hartuta erantzutea da.

Dokumentuak Hegoa, Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenerako buruzko Ikasketa Institutuko (UPV/EHU) ikertzaile Karlos Pérez de Armiñoren koordinaziopean landu dira. Hirugarren ale hau Francisco Rey Marcos, Alicia Pérez Daza eta Karlos Pérez de Armiñok landu dute.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ez du zertan bat etorri lan honetan adierazitako iritziekin.

Dokumentu honek Creative Commons erakundearen lizentzia dauka. Lan hau askatasun osoz kopiatzeko, banatzeko eta jendaurrean jakinarazteko baimena ematen da, betiere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu, eraldatu edo lan honetatik eratorritako beste lan bat sortu.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abendua

EKINTZA HUMANITARIOAREN ERAGILEEKIKO BEGIRADA PROSPEKTIBOA

1. Sarrera

Gatazka- eta indarkeria-tipologia berriak, hondamendi “naturalen” inpaktua, krisi kronikoak deitutakoak eta Siriako gerra, premia humanitarioak azken urteetan nabarmen handitu izana ekarri duten kausen artean daude. Datuek azaltzen dute nazioarteko komunitatetik ematen ari den erantzuna ez dela nahikoa. Ez gara erantzuteko gai izaten ari ez kantitateari ezta moduari dagokionez ere. Erantzunak ez dira eraginkorrak eta ez daude herritarren premiei lotuta, eta finantza-baliabideak ez dira nahikoak. Hainbat azterlanek adierazten dute funtsak handituta soilik ez liratekeela eraginpeko pertsonen eskubideak bermatuko eta hutsune (gap) humanitario garrantzitsu bat izaten jarraituko genukeela. Herrien premietan oinarritutako baliabide-esleipena egitea teoriarik aplikatzen den zerbait da, ez ordea praktikan. Ohikoa izaten ari da krisi batzuek finantzaketa handia jasotzea eta beste batzuek portzentualki oso funts gutxi jasotzea euren premiekin alderatuta.

Testuinguru horretan, eragile bakoitzak modu eraginkor, efiziente eta egokian jardun dezan bermatzea ekintza humanitarioaren kezka nagusia izan da azken hamarkadetan, bereziki Ruandako genozidioaz geroztik, non deskoordinazioaren ondoriozko arazoak oso kezkarriak izan ziren eta oso ondorio kaltegarriak izan zituzten. Horren ondorioz hainbat ekimen sortu ziren laguntzaren kalitatea hobetzeko eta elkarlana sustatzeko. Egungo une historikoan kokatuz, non estali gabeko premia humanitarioak errekor historikoetara iristen diren, eragile bakoitzaren funtsen efizientzia eta efikazia gorenara lortzeko moduari buruzko eztabaida sustatzea erabat bidezkoa da.

Azken urteotan, hainbat forotan, agerian geratu da lankidetzaren edo ekintza humanitarioaren eremuan hainbat erakunderen arteko ohiko funtzio-banaketa zaharkituta geratu dela. Erakunde bakar batek ere elkartasunaren monopolioa ez duela eta, beraz, erakunde guztiek besteekin lankidetzan jardutea onartu behar dutela argi geratu da azkenaldian. Hausnarketa hori argi geratu zen 2016an Istanbulen egin zen Munduko Goi-bilera Humanitarioan (WHS, ingelesezko siglen arabera). Goi-bileran mota guztietako erakundeek hartu zuten parte, eta bertan aliantzei, parteneriotzei, lankidetzan jardun beharrari eta koordinazioari buruz hitz egin zen: izan ere, horiek izan ziren goi-bilerako funtsezko hitzak. Lokalizazioa azpimarratzea adibidez, zeina 1. koadernoan aipatu den, erantzun solidarioan eragileen zereginari buruzko ikuspegi askoz irekiagoaren ondorio izan zen, hain zuzen ere.

Euskadi, bertako herritarrak eta erakundeak, aitzindariak izan dira herrialde pobreekiko eta gatazkak edo hondamendiak jasaten dituzten herrialdeekiko elkartasunean, eta euskal elkarte-sarea oso aktiboa izan da gai horretan. Hala eta guztiz ere, nazioarteko eszenatokian izan diren aldaketek, lankidetzak testuinguru horretan duen zeregin berriak, 2030eko Agendaren eta Garapen Jasangarriko Helburuen eta Munduko Goi-bilera Humanitarioaren proposamenen inpaktuak konpromiso hori eguneratzen duen eta eraginkorrago bihurtzen duen hausnarketa bat egitea eskatzen dute, konpromiso hori etorkizunean elkartasun-ahaleginen barnean gehiago sartuz.

2. Aurrea hartzea eta etorkizunerako prest egotea

Serie honen "Eraldatzen ari den sistema humanitarioa. Munduko Goi-bilera Humanitarioaren osteko erronkak" lehenengo lan-dokumentuan, sistema humanitarioaren errealtatea eta hainbat mugapen aztertu genituen krisiari modu eraginkorrean erantzuteko. Koaderno

honetan orainaldian oinarritutako ikuspegi hura osatu nahi dugu, eragile humanitarioek eta, oro har, elkartasunari lotuta dauden erakunde eta instituzioek prestatu behar duten moduari buruzko prospektibaren batekin, etorkizunari aurre egin ahal izateko.

Ekintza humanitaria, batez ere emergentziazko erantzuna, elkartasunerako modurik zuzen eta nagusienetakoa da, eta horrek ekarri du pertsona eta erakunde askok ekitaldi horien ondoren euren laguntza eskaini nahi izatea. Esperientziak erakusten du zenbait kasutan borondate ona baina esperientzia gutxi duten erakunde askoren parte-hartzeak eragin negatiboa izan dezakeela. Baina etorkizunari begira, badirudi mundu globalizatu honetan, non herritarrek informazioa denbora errealean eskuratzeko aukera duten, larrialdietan ekarpenak egiteko borondate hori handituz joango dela. Gazte askok *crowdfunding* sistemak edo sarean lan egiteko mekanismo berritzaileak jartzen dituzte abian, baina kasu gehienetan sektoreko agentziek ez diete jaramonik egiten eta ez dituzte kontuan hartzen. Tokiko mailan, erakunde berri asko diasporarekin lotzen dira hondamendien edo gatazken biktimentzako funtsak bideratzeko. Gauza asko ari dira mugitzen sektore honetan. Hala eta guztiz ere, erakunde handiek ez dute aldaketarik egin nahi, Munduko Goi-bilera Humanitarioan argi geratu zen bezala. Denok badakite etorkizunerako prestatu behar direla eta beharrezkoak diren antolaketa-aldaketak egin behar dituztela, baina inertzia instituzionalak aldaketa horiek geldiarazten ari dira. Gaiaren garrantziak ekarri du azken urtean nazioarteko erakundeen, GKEen sareen eta erakunde akademikoaren hainbat lan argitaratzea, 2030eko ikuspegiarekin egungo sistemaren eta bere erakunde zurruntasuna gaituzteko duten egokitzapen- eta aldaketa-proposamenak eginez (IARAN, 2017; Humanitarian Futures, 2017; OCHA, 2017; IECAH, 2017). Txosten guztiak bat datoz hainbat alderdiri dagokienez:

- Ekintza humanitaria beharrezkoa den testuinguruetan gertatzen ari diren aldaketei **aurrea hartu beharra**, erakundeen ahalmenak premia horietara egokituz. Hori da proposamen horien guztien logika komuna. Aurrea hartzea, aurreikuspena eta prestakuntza sektoreari indar handiagoarekin txertatu behar zaizkio.
- Argi geratu da **etorkizunerako prest egoteak** erakundeen baitan **antolaketa-eraldaketak eta eraldaketa instituzionalak egitea dakarrela**.
- Onartu behar da beharrezkoa dela "humanitariotzat" hartu izan ez diren **beste eragile batzuen parte-hartzeaz jabetzea**, esperientzia eta ezagutza espezializatuak eskaini ditzaketen arloetan haien parte-hartzea bultzatuz, balio handiagoa emateko. Horixe da sektore pribatuaren, komunikabideen edo eskualde-erakundeen kasua, besteak beste.
- Beharrezkoa da erakundeen artean **sareko lan handiagoa sustatzea eta aliantza mota berriak eratzea**, malguagoak izango direnak eta Hegoalde Globaleko erakundeen presentzia handiagoa izango dutenak. Eztabaida handiagoa sortzen du beste eremu batzuetako, adibidez garapenaren edo bake-eraikuntzaren eremuetako eragileekiko aliantzen gaiak, edo giza eskubideen alorreko erakundeekiko elkarlana sustatu beharrak, eraginpeko pertsonen aldeko eragin politikoari eta diplomazia humanitarioari lotuta.
- **Nazioarteko GKEen deszentralizazio-modu desberdinak** bultzatzea, bazkideen artean federazioak edo bestelako antolaketa-mekanismo parekideagoak eratu. Tokiko GKEen eremuan "fedea oinarri duten erakundeen" (Faith-Based NGOs) hazkundera eta garrantzia ere onartzea, zeregin humanitarioari buruz dituzten ikuspegi desberdinak txertatzea komenigarria delako.
- Hondamendien edo gatazken **eraginpean dauden** edo horiek jasateko joera duten **herrialdeetako erakundeak** edota haien gobernuak **sendotzea**, laguntza eta babes


humanitarioko zereginak bete ahal izan ditzaten. Lokalizazioaren diskurtsoa garrantzia hartzen ari da pixkanaka, baina zenbaitek mugak ikusten dituzte gatazkan dauden herrialdeen kasuan.

- **Beharrezkoa da aldaketak egitea Nazio batuen agentzietan eta NBEren zeregin humanitarioan.** Onartu behar da zaila dela gatazkaguneetan printzipio humanitarioei jarraikiz lan egitea, hainbat agentziaren artean eta NBEren bake eta segurtasunaren alorreko funtzioekin aginte-talka egon daitekeelako.
- Onartu behar da tokiko nahiz nazioarteko **indar armatuen parte-hartzea handitzen ari dela** laguntza emateko garaian. Beraz, gai hori argitu beharra dago, "laguntzaren militarizazioa" saihestuz, arriskuak ekar ditzakeelako.
- Beharrezkoa da **aldaketak egitea erakunde emaileetan**, aurrerantz egin ahal izateko urte anitzeko finantzaketa edota finantzaketa finalistaren aurreko malgutasuna bezalako gaitan, Grand Bargaineko konpromisoetatik haratago ere.

Argi dago gai horietako askok inplikazioak dituztela ekintza humanitario espainiarrean eta lankidetzan deszentralizatuan, eta hori ondoren landuko dugu modu laburrean.

Erakunde Humanitarioen Munduko Datu Basearen (Humanitarian Outcomes, 2015) arabera, gutxi gorabehera 4.480 erakundek ziharduten laguntza humanitarioaren hornitzaile gisa mundu osoan 2014. urtean. Horietako gehienak GKE nazionalak edo tokikoak dira, eta soilik euren herrialdeen barruan lan egiten dute eta sistematik igarotzen den nazioarteko laguntzaren zati handi bat entregatzeko ezinbesteko mekanismoa osatzen dute. ALNAPek honako era honetan irudikatu du "sistema" hori:

1. grafikoa: sistema humanitarioa



Iturria: "Estado del sistema humanitario". ALNAP 2015.

Hainbat autorek "ekosistema humanitario" bat aipatzen dute (Rey, 1998; IARAN 2017), non ekosistema horren eragile "formalak" nahiz "informalak" kokatzen dituzten, eta onartzen dute hondamendien osteko erantzunean erakunde eta pertsona asko daudela inplikaturak. Sektore horrek badaki baliabideak eskasak direla premien handitasunaren aurrean (diru-premiez gain, denborari, pertsonari eta ezagutza teknikoei lotutako premiak ere bai), eta bere helburuak eta arazoak banantzeari uko egiten dion sistema baten barruan, askotan ikus daiteke noranzko batean aurrerantz egiteko edozein erabaki baturan zero emango duen joko bihurtzen dela, hau da, arreta eta baliabideak leku batetik beste batera, helburu batetik beste batera desbideratu beharra ekarriko duela. Horri aurre egiteko, sistema humanitarioaren barruan ekosistema bati buruz hitz egiten hasi dira (sistema bati buruz hitz egin ordez), non onartzen den ez dagoela irtenbide unibertsal bat arazo guztientzat eta ikuspegi operazional eta estrategiko berezietan emaitza kolektiboa elikatzen eta babesten duten, baita elkarrekin zuzenean lan egiten ez dutenean ere (IECAH, 2017).

3. Tokiko eragileen garrantzia eta ahalmena handitzea

Hainbat egoeratan tokiko protagonismoak dituen abantailak, eragozpenak eta balizko mugapenak hainbat hamarkadatan eztabaidatu ondoren, Munduko Goi-bilera Humanitarioak hondamendien edo gatazken eraginpeko herrialdeetako erakundeak askoz gehiago sustatu beharri babes nabarmena eman zion. "Lokalizazio" gisa ezagutzen dena, alegia. Uste dugu gai hori argi eta garbi geratu dela, eta horrek, etorkizunari begira, hainbat inplikazio ditu:

- **Tokiko ahalmena onartzea.** Horrek izan behar du abiapuntua. Dagoena eta bere funtzionaltasuna baloratzea. Eta hori oinarritzat hartuz, beharrezkoa dena eraikitzea.
- **Krisiek eraginpean hartzen dituzten edo krisiak jasateko joera duten herrialdeetako agintariek lan egin beharra.** Estatuak dira euren herritarrenganako arretaren lehen erantzuleak, eta hainbat gobernu nazioarteko laguntza gaizki edo oker erabili edo manipulatu izan duten kasuak maizegi gertatu badira ere, beharrezkoa da hondamendien aurrean prebenitzeko eta erantzuteko dituzten tresnak sendotzen laguntzea. Argi dago gatazka-egoerak desberdinak direla, izan ere, gobernu alderdi beligeranteetako bat denez gero, harekin lan egiteak printzipio humanitarioei jarraikiz lan egitea oztopatuko bailuke.
- Nazioarteko sistema humanitarioak gobernuen bitartez bideratutako funtsek oso txikiak izaten jarraitzen dute (batez beste % 4 inguru azken urteetan), baina Filipinetan edo Ekuadorren duela gutxi gertatu diren hondamendi naturalei lotutako hainbat kasu erakutsi dute efikazia handia dutela. **Tokiko erakundeek laguntza-ahaleginaren kuantifikazioa oraindik ere ez da batere zehatza, eta etorkizunean sakonago aztertu behar den gaia da.**
- Hainbat emailek eta GKEk arazo administratiboak dituzte gobernuak zuzenean finantzatu ahal izateko, eta hori laguntzaren "lokalizazioaren" etorkizuneko sustapenari begira oztopo bat da.
- Mota guztietako tokiko erakundeek, hala nazioarteko sareei lotutako nahiz lotu gabeko GKE konbentzionalak nola gizarte zibileko beste erakunde mota batzuek, hazkunde ikusgarria izan dute; eta gero eta gehiago dira, mundu osoan, zeregin humanitarioekin bat egiten dutenak.

- **Beharrezkoa da tokiko erakundeak zuzenean finantzatu eta babesteko Grand Bargainen konpromisoak eta hainbat GKEk C4Can** (Charter for Change edo Aldaketarako Gutuna) **hartutako konpromiso zehatzago batzuk zehaztea**, laguntza humanitarioaren alorrean bideratzaile edo betearazle gisa duten zeregina gaindituz, datuek erakusten baitute lokalizazioaren esparruan egindako aurrerapenak oraindik ere txikiak direla. “2018ko maiatzerako hegoaldeko GKEetara gure finantzaketa humanitarioaren %20a gutxienez ere transferitzeko konpromisoa hartzen dugu” dio C4C gutunak. Konpromiso exigentea da, eta horren kontu eman beharko da. Eta, etorkizunari begira, konpromiso horiek handitu egingo al dira?
- Alderdi finantzarioarekin batera, beste erronka handietako bat eremu humanitarioan **tokiko erakundeen ahalmena indartzea** da, baita iparraldeko agentziek haien esperientzia ondo aprobetxatzea ere. Ikaskuntza elkarren artekoa da eta hala izan behar du. Gainera, C4C gutunak dioen bezala, “Gure ahalmen-erakuntzaren seriotasunaren frogatzea bat zera izango da, beranduenez ere 2018ko maiatzerako gure bazkideei laguntzeko egingo dugun baliabide-esleipena. Beranduenez ere 2018ko maiatzean, ekintza humanitariorako ahalmena eraikitzeko gure bazkideei zuzenean bideratutako ekintza humanitariorako gure aurrekontuaren portzentajeak argitaratuko ditugu”.

4. **Gizarte zibileko beste eragile batzuk ekintza humanitarioan txertatzea**

Hondamendien erantzunari edo gatazketako jardunari lotutako gaiak dira beharbada nahaste, aurreiritzi estereotipatu eta ikuspegi hutsal edo sinplifikatu gehien sortzen dituztenak iritzi publikoan, hala iparraldeko nola hegoaldeko herrialdeetan. Horren ondorioz hainbat gizarte-erakunde ez dira hurbiltzen esparru humanitariora edo, hurbiltzea erabakiz gero, sektorea ondo ezagutu gabe egiten dute, horrek sor ditzakeen arriskuekin.

Hala eta guztiz ere, onartu behar dugu gure gizartean ahalmen solidarioa erakunde edo emaile konbentzionalena baino askoz handiagoa dela, eta beste sektore batzuk ondo informatuta erakartzea ekintza globalerako oso onuragarria izango litzatekeela. Etorkizunerako planteamendu horretatik ondorioztatzen diren gaietako batzuk honako hauek izango lirateke:

- Eragile humanitarioek egiten dituzten **sentsibilizazio-zereginetan**, herritartasun globalerako hezkuntzan, komunikazio orokorrean eta abar, krisiari, hondamendiei, gatazkei, horien kausa sakonei, kalteberatasun-egoerei, erantzunari eta abarri lotutako alderdiak sartzea, esparru horretan herritarren kontzientzia sustatzeko modu gisa.
- **Gizarte zibileko beste erakunde batzuei** eta gizarte-taldeei **zuzendutako ekimenak** planteatzea, arazo horiei hainbat ikuspegitik aurre egiteko moduari buruzko eztabaida sor dezaten.

5. **GKEentzako antolaketa-erronkak nazioarte-mailan**

Nazioarteko GKEak (NGKE) eta euren sareak eragile garrantzitsuenetako bat izan dira ekintza humanitarioaren historian, hala kuantitatiboki –funts propioak, emaileen funtsak edo NBEaren agentzien funtsak kudeatuz–, nola kualitatiboki –kalitateari buruzko eztabaidak eta ekimenak gidatuz, sektorearen berrikuntza teknikoa sustatuz, eragin politikoa duten zereginak eginez, eta abar–. Garapenaren eremuan, adibidez, NGKEen balio erantsiari buruzko eztabaida oso bizia bada ere, badirudi Ekintza Humanitarioaren eremuan ez dagoela zalantzarik haien abantaila eta balio erantsiari dagokienez.

Antolaketaren ikuspegitik, dena den, GKEek eta batez ere sektore humanitarioko NGKEen sare handiek azken urteotan hainbat eraldakuntza hasi dituzte nazioarteko errealitate berrietara egokitzeko eta etorkizunerako prestatzeko. Iparralde-hegoaldea lan-eredu zaharra, non iparraldeko GKEak emaleen funtsak erakartzen dituen eta hegoaldeko bere kontrapartearen bitartez transferitu eta egikaritzen dituen, hegoaldeko kontrapartearekin nolabaiteko harreman hierarkikoa eta zenbaitetan mendetasunekoa izanik, NGKE askok berraztertu egin dute azken hamarkadan. Ia NGKEen sare handi guztiek (Oxfam, Save the Children, Action Aid, World Vision, Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Sozietateen Nazioarteko Federazioa eta abar) mundu mailan antolaketa berregituratzeko programa handiak hasi dituzte. Eta beste asko joera horri jarraitzen hasi dira. Oro har, auzia da antolaketa-eredu horizontalago eta igualitarioagoetara igarotzea, egitura deszentralizatuagoak eta parte-hartze handiagoak eratzuz.

Azkenaldiko hainbat argitalpenek NGKE humanitarioen balio-katea aztertzen dute eta NGKEen hainbat tipologia oso interesgarri proposatzen dituzte.

2. grafikoa: balio-katea



IARAN 2017an oinarritua

NGKEen sare bakoitzak balio-katean jartzen dituen ñabarduren arabera, autoreek 5 eredu posible ezartzen dituzte (IARAN, 2017):

- 1. antolaketa-profila. NGKE bazkideak “frankizian”, marka global bati lotuak.
- 2. antolaketa-profila. Funts globalen NGKEak, kausa baterako funtsak bateratzen dituztenak.
- 3. antolaketa-profila. NGKE su-itzaltzaileak, larrialdiko erantzunean eta zuzeneko inplementazioan espezializatuak.
- 4. antolaketa-profila. NGKE & Co., baliabideak sare batean komunitarizatzen dituztenak.
- 5. antolaketa-profila. NGKEak zure zerbitzura, tokiko eta eskualdeko eragileentzako zerbitzuak hornitzen dituztenak.

Nolanahi ere, eredu posible horietatik haratago, sektore humanitarioan NGKEen sareentzako erronkak, antolaketaren ikuspegitik, honako hauek izango lirateke, laburbilduz:

- NGKEaren eginkizuna modurik eraginkorrean egitea ahalbidetzen duten antolaketa-ereduak ezartzea. Noski, ez da eredu berdina izango larrialdietarako eta erantzun azkarreko NGKERako eta mandatu zabaleko edo “multimandatuko” NGKERako. Horrek espezializazioari edo lan orokor bati buruzko erabakiak hartzea dakar, inplikazio asko izanik.
- Bere jarrera eta ikuspegia argi definitzea "balio-katearen" elementu bakoitzean; eta modu orekatuan egiten saiatzea.

6. Nazio Batuen beharrezko erreformak alderdi humanitarioa modu globalean izan behar du kontuan

NBEaren zeregin humanitarioa aztertzen den bakoitzean gogoan izan behar da 1991. urtera arte, Batzar Orokorraren 46/182 Ebazpenarekin, ez zuela planteatu NBEak erantzun humanitario globalaren koordinatzaile eta lider gisa zuen zeregina. Orduz geroztik, nazioarteko erakundearen garrantzi kuantitatibo eta kualitatiboa ikaragarri hazi da, eta gaur egun, bere agenzia guztien bitartez, funtsezko eragile humanitarioa da.

1991. urteaz geroztik OCHA gidatu duten eta sistema osoa koordinatzen ahalegindu diren Gai Humanitarioetarako Zuzendariorde Nagusiek hainbat erreforma-proposamen jarri dituzte abian, eta agentzien multzoaren lana teknikoki sendotu egin dute baina lan hori baldintzatzen duten hainbat sakoneko gai ez dituzte konpondu. Erreforma humanitarioak, Eraldaketarako Agentziak eta gainerako ekimenek NBEren esparru humanitarioko zeregina soilik partzialki finkatu dute. Munduko Goi-bilera Humanitarioa gai horietako batzuk aztertzen ahalegindu zen, indarkeriazko gatazken prebentzioa zuzenean planteatu zuenean Gizateriarentzako Agendaren ardatz nagusi gisa. Baina emaitzak alor horretan ez ziren batere zehatzak izan, NBEaren agentzien mandatu espezifikoki humanitarioak nabarmen gainditzen dituztelako eta erreforma askoz handiagoak behar izango lituzketelako.

NBEak zenbaitetan proposatu du agenzia guztien arteko lana koherenteagoa izan dadila, gai humanitarioak eta garapenari lotutakoak bateratzeko. Ekimen horietako azkena, “New Way of Working”, “emaitza kolektiboak” lortzea helburu duena, inplementatzen hasi da 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriaren Helburuak onartu ondoren. Hainbat eragile humanitariok, berriz ere, esparru humanitarioa garapenaren agendaren mende geratzeko arriskua ikusten dute, agenda hori baita nagusi une honetan.

NBEaren osagai humanitarioak zenbaitetan talka egiten du erakundeak nazioarteko bakea eta segurtasuna zaintzeko emandako funtsezko mandatuarekin. San Frantziskoko Gutunak Segurtasun Kontseiluari aukera ematen dio indarraren erabilera hertsatzailea dakarten ebazpenak abian jartzeko, eta ondorio humanitario larriak izan ditzakete edo NBEaren zereginen barruan nahastea eta koherentziarik ezak sor ditzakete. Hainbat autorek NBEaren “eskizofrenia” aipatzen dute, edota “hainbat buru dituen hidra” dela diote ideia hori adierazteko. Hainbat autorek ere proposatu dute NBEaren zeregin humanitarioek autonomia handiagoa izan behar dutela edota erakundearen hierarkiatik kanpo geratu behar dutela, bake eta segurtasunaren alorreko erabakiek kutsatu ez ditzaten.

Nolanahi ere, **NBEaren balizko erreforma batek gai humanitarioak ikuspegi zabalago horiekin azertu beharko lituzke** egungo arazoen funtsa benetan konpondu nahi bada.

Ikuspegi zehatzago eta errealistago batetik, NBEak etorkizuneko ekintza humanitarioan izango duen zereginari lotuta abian dauden proposamenetako batzuk honako hauek dira:

- **Kontribuzio ekonomikoen eredu aldatzea**, nahitaezko kuoten eredu bat ezarriz. Errefuxiatuentzako NBEaren Goi Komisarioa zenean, NBEaren egungo Idazkari Nagusi António Guterresek ekintza humanitarioa Estatu kideen kuoten bitartez finantzatzeko ideia planteatu zuen. Horrek borondatezko finantzaketaren egungo ereduari lotutako mugapenen arazoa konponduko luke, eta euren BPGarekin alderatuz gero nahiko txikiak diren kopuruak ematen dituzten Estatu aberatsek beren gain karga handiagoa hartzeko egiten diren eskaerei erantzungo lieke.
- **NBEaren laguntza humanitariorako ahalmena arrazionalizatzea** (ALNAP, 2015). Azkenaldian proposamen formalik aurkeztu ez den arren, kontuan izan beharreko beste egitura-aldaketa esanguratsu bat izango litzateke NBEaren ahalmen humanitarioa arrazionalizatzea, gaur egun hamar bat agentzia independentetan sakabanatuta baitago, larrialdi-sistema homogeneoagoa eta kontu-ematerako ildo bateratuak dituen sortzeko. NBEaren agentzia humanitario bakarra ez egoteak (OCHAK ez du mandatu hori) giza baliabideen, finantzen eta kontratazioaren sistema desberdinak bateratzea eta arrazionalizatzea ekar lezake. Arrazionalizazioak nazio-mailan lidergo humanitarioa indartuko luke, koordinazioaren zama arinduko luke eta beharrezkoa denean ekintza azkar eta irmoagoa ahalbidetuko luke, adibidez eskualde-mailan hornidura- eta logistika-zentroak gehiago finkatuz. Tamalez, NBEaren agentzia handien inertzia eta aldaketarako erresistentzia oso handiak dira, askotan oso antzekoak diren proiektuak eginez.
- **Koordinazio- eta lidergo-ereduak birplanteatzea**. Behin batean, Gai Humanitarioetarako alboko idazkari nagusi ohi batek honako ideia tautologiko hau formulatu zuen: “koordinazio-arazo nagusia sistema humanitarioa oso zatituta dagoela da”. Jakina, sistema erabat bateratuta egongo balitz, ez litzateke beharrezkoa izango koordinazioa, eta denok informazio berdina edukiko lukete eta helburu berdinak lortzeko lan egingo lukete. Sistema, ordea, gobernu-egitura, pizgarri eta erantzukizun-ildo desberdinak dituzten egiturak dituzten erakunde autonomoek osatuta dago, eta koordinazio-lana beharrezkoa da. Sistema koordinatu batek nolabaiteko efizientziarik eza du beti, piezak ordena koherente batean ahokatzeko lan osagarri handia egitea (eta kasu honetan, nahiko antolaketa-egitura handiak sortzea) beharrezkoa delako. Prozesuari garrantzi handiegia emateko eta zeregin nagusien bidean tartean jartzen diren zeregin burokratikoekin lanpetuta egoteko arriskua dago, eta praktikan hori gertatzen da askotan. Alderdi positiboan, koordinazio boluntarioko mekanismo heterogeneo baten barruan eragileen

independentziari eusteak ikuspegiaren malgutasuna ahalbidetzen du eta taldearen eraginaren aurrean berrikuntza bultzatzen du.

7. Eskualde-erakundeak sendotzea

Aurreko atalean NBEari buruz esandakoaren osagarri gisa, aipatu nahi dugu eskualde-erakundeek esparru humanitarioan kontinente guztietan duten garrantzia handitzen ari dela eta ebidentzia guztiek zeregin horri etorkizunean garrantzi handia ematen diotela. Eskualde-erakundeen zeregina orain arte agerian egon da larrialdi handiei emandako erantzunean edo hondamendien arriskuen murrizketan, baina gai horiei buruzko hainbat nazioarteko konferentziaren eta Munduko Goi-bilera Humanitarioaren ildotik eskualde-erakunde guztiak euren politikak eta bitartekoak sendotzen ari dira gai horretan.

8. Indar armatuen zeregina. Istorio amaiezina

Gai gutxi landu dira hau bezainbeste. “Injerentzia humanitarioa” deitutakoa edo “esku-hartze militar humanitarioak” agertu zirenetik gaur arte, erantzun humanitariorako bitarteko militarrek erabiltzearen edota indar armatuek ekintza humanitarioan zuzenean parte hartzearen gaia handitzen eta konplexuago bihurtzen joan da. Erantzun humanitariorako bitarteko militarrek eta defentsa zibila erabiltzeari buruzko Osloko jarraibideek, euren bertsio desberdinetan, 1992an proposatu zirenak eta 2007. urtean berrikusi zirenek, gai hori orientatzeko oinarriko erreferentziazko esparru izaten jarraitzen dute. Jarraibideek printzipio humanitarioen errespetua azpimarratzen dute, bai eta bitarteko militarren erabilera ere: erabilera osagarria, zeharkako laguntza, edo azpiegiturari laguntzeko erabilera eskainiz.

Hala eta guztiz ere, errealitateak erakusten du hainbat herrialdetan eta hainbat nazioarteko krisietan ematen den barne-erantzunaren esparruan bitarteko militarren erabilerak ez dituela jarraibide horiek kontuan hartzen, eta batez ere gatazka-egoeratan nahasmenduak ohikoa izaten jarraitu duela. Laguntzaren militarizazioa, kasu askotan “seguritizazio” testuinguru zabalago batean, zabaldu egin da, eta horrek erakunde humanitarioei erronkak eta dilemak planteatzen jarraitzen du. Indar armatuak, definizioz, ezin dira eragile humanitariorat hartu. Beste gauza bat da euren bitartekoak eta ahalmenak, publikoak direnak, hondamendiek eraginpean hartutako pertsona eta herrien onurarako erabili ahal izatea.

Etorkizunari begira eta orain arteko joerak kontuan izanik, honako proposamen hauek aipatu beharko lirateke:

- **Osloko Jarraibideak babesten jarraitzea**, askotan sektore humanitariorako baliagarriak izan diren eta sinergiak ezartzeko erabili diren zentzuzko irizpideak biltzen dituen gida den heinean.
- Gai horretan izandako **esperientzia praktikoei buruzko eztabaida eta analisiak** bultzatzea. Militarrek ez dute parte hartzen ekintza humanitarioa ebaluatzeko prozesuetan, eta oso gutxitan ematen dute euren lanaren kontu sektorean onartutako irizpide humanitarioetan oinarrituz.
- Indar armatuek ekintza humanitarioa, ekintza horren printzipioak, esparru juridikoa, erakundeak eta abar sakonago ezagutzeko **ahalegina egitea**.

9. Enpresa pribatuen zereginari buruzko ikuspegi berriak

Sektore humanitarioa lankidetzaren beste eremu batzuk baino eszeptikoagoa eta zuhurragoa izan da beti enpresa-munduarekiko harremanean. Gatazka-egoeren konplexutasuna, printzipio humanitarioekiko errespetua eta lankidetzaren horrek ekar dezakeen nahaste-arriskua izan dira bi sektoreen arteko urruntasun horren arrazoietakoz batzuk. Hala eta guztiz ere, NBEaren eta GKEen, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordearen edo eragile pribatuen esparruan sortutako hainbat ekimenek sektore pribatuarekin lankidetzaren aritzeko jarrera irekiagoa izatea ekarri dute. 2000. urteko "Guidelines on a Principle-based Approach to the Cooperation between the United Nations and the Business Sector" deitutakoek eta *Global Compact* deitutakoaren beste dokumentu batzuek hainbat lankidetzaren modu proposatzen dituzte, eremu humanitarioan edo beste eremu batzuetan oro har onartutako printzipioak errespetatuz sektore pribatuaren parte-hartzea ahalbidetzen dutenak.

Horrekin batera, iparraldean nahiz hegoaldean hondamendiei emandako erantzunen hainbat esperientzia praktikoa lankidetzaren hori eraginkorra izan daitekeen uneari eta lekuari buruzko nolabaiteko doktrina sortuz joan dira. Adibide gisa, New Orleanseko Katrina urakanaren kasuan, agintarien pasibotasunaren aurrean, Wallmarteko langileek euren ahalmen logistikoa martxan jarri zuten biktimei laguntza emateko, edo errefuxiatuen esparruetan energia hornitzeko hainbat aliantza publiko pribatu, besteak beste Shire Aliantza, non gobernu kanpoko erakundeek eta enpresa espainiarrek AECIDekin batera parte hartu zuten, frogatzen ari dira sektore honetan sinergiak oso baliagarriak izan daitezkeela.

10. Komunikabideak eta erakunde humanitarioak: ongi moldatzera kondenatuak

Lankidetzaren eremu bakar batek ere ez du eremu humanitarioak komunikazioarekiko eta irudiarekiko duen mendetasuna. Jadanik ez gara bizi "CNN eragina" deitutakoaren garaitan, baina komunikabide tradizionalak gain, sare sozialek eta komunikazio-mekanismo informalek ere eragina dute gure lanean. Eta modu positiboan eragin dezakete, larrialdietan edo gatazketan sinergiak sortuz eta jendeari egoeraren berri modu egokian emanez eta herritarren erantzuna sortzen lagunduz, edo, aitzitik, amarillismoaren eta sentsazionalismoaren bitartez herritarren pasibotasuna bultzatuz.

Komunikabideekin eta mota guztietako informazio-bitartekoekin egin beharreko lana, beraz, eragile humanitarioen eguneroko zereginaren barruan sartu behar da. Komunikabideak ez dira sistema humanitarioaren eragiletzat hartzen, baina inork ez du zalantzarik euren eragina oso handia dela eta komunikabideen eta elkartasun-erakundearen artean lotura egonkorra ezartzea funtsezkoa dela.

11. Egokitzapenak emaile publikoetan: Espainiako laguntzarako inplikazioak

2004. urtean gobernu emaile gehienek Dohaintza Humanitario Egokiaren Printzipioak (GHD, ingelesezko siglen arabera) sinatu zituztenetik 2016ko Grand Bargainera arte, herrialde eta nazioarteko erakunde askok (ECHO, CAD, Munduko Bankua eta abar) finantzaketa humanitarioaren espezifikotasuna eta, beraz, funtsak helburu humanitarioak betetzeko baliagarriak izateko irizpideak eta konpromisoak ezartzea beharrezkoa dela ulertu dute. Era berean azpimarratzekoa da prozesu honetan hainbat "emaile berri" txertatu direla eta, teoriarik behintzat, ekimen horiek babes orokorra dutela. Grand Bargainean ezarritako kontu-ematerako mekanismoak eta Garapenerako Laguntza Batzordearen bikote-ebaluzioetan sartutako ekintza humanitarioaren atalek baliagarriak izan behar dute aurrerapen horien hedadura ikusteko.

Etorkizunari begira, Grand Bargainaren betetzean sakontzeaz gain, ekintza humanitariorako funts-hornitzaileek landu beharreko elementu batzuk honako hauek izango lirateke:

- **Laguntza humanitariorako funtsen mobilizazio azkarra, malgua, urte anitzekoa eta egokia ahalbidetzen duten legeria- eta administrazio-aldaketak** ausardiaz sartzea.
- Emaizetan (ez ordea kontabilitate- eta administrazio-jarraipen soilean) oinarritzen diren **gardentasunerako eta kontu-ematerako mekanismoak** hobetzea eta indartzea. Inpaktu-ebaluazioak txertatzea, batez ere krisi handiei erantzuteko programa handietan.

Irizpide horiek erabateko lehentasuna dute Espainiako laguntzaren kasuan.

12. Ekintza humanitariorako erronkak lankidetzan deszentralizatuan

Zein izan beharko litzateke administrazio deszentralizatu baten zeregina ekintza humanitarioan 2030. urtean? Orain arte bezala jardun beharko genuke? Nola egokitu beharko ginateke solidarioak eta eraginkorrak izaten jarraitzeko gero eta aldakorragoa den eta kezka handiak dituen egungo ingurunean?

Dudarik gabe, horiek dira koaderno hauetan egiten diren eta oso bereziki etorkizunari begiratu nahi dion koaderno honetan planteatzen diren galderetako batzuk. Koaderno hauen serie osoaren hausnarketetako batzuk laburbilduz, honako hau egin beharko genuke:

- **Jardun-testuinguruetan gertatzen diren aldaketekiko** eta euren bilakaerarekiko **adi egon**.
- **Aurea hartzeko** eta alertarako **ahalmena hobetzea**, krisien jarraipen-zeregin horietan diharduten nazio-mailako eta nazioarteko erakundeekin harreman sakonagoa izanik. Auzia ez da ahalmenak sortzea horiek jadanik badauden eta eskura dauden eremuetan.
- Gure ekintzak **balio erantsia** izan dezakeen guneak sakon ezagutzea, hala arlo tematikoan nola geografikoan, edota beste irizpide batzuen arabera.

13. Aliantza berriak eta sareko lana

Aurreko guztiaren eta hainbat txosten prospektiboren azterketaren amaiera gisa esan dezakegu etorkizunean eszenatoki gehienetako lan humanitarioa mota askotako erakundeekin aliantzek egingo dutela. Antolaketa-kultura desberdinak, lan-ikuspegi desberdinak, espezializazio-maila aldakorrak eta abar bateratzea ez da lan erraza izango, eta agentzia humanitario handiek ahalegin handia egin beharko dute euren konfort-zonatik ateratzeko. Baina "sistema hibrido" hau, aliantza malguena eta arlo formala arlo informalekin uztatzen duten sareena, sustatu behar dugu etorkizuneko erronka ugarietako askori aurre egiteko.

Adibidez, larrialdien erantzunaren eremu espezifikoan, lan humanitarioaren oso osagai garrantzitsua izaki, hainbat GKEk, esate baterako Mugarik Gabeko Medikuek erakundeak, honako hau proposatzen dute: "Horretarako beharrezkoa izango da larrialdi-mentalitatea duten emaile eta erakundeek osatutako nolabaiteko 'koalizioa' egitea, lankidetzan jardun dezaten nazioarteko erantzun-ahalmen fidagarria, ondo prestatua eta gatazken hasierako faseetan eta fase larrietan hedatzeko eta laguntza kritikoa emateko arintasuna duena eraikitzeko. Ingurune zailetan arintasun horri eta esku hartzeko ahalmenari eusteko beharrezkoa izango litzateke jarduteko independentziari eustea eta lankidetzan-esparru

informalago batean lan egitea, une honetan Nazio Batuek koordinatutako erantzunen bereizgarri den pisu burokratikotik aske. Eta Nazio Batuen Erakundea sare horren erdian nekez egongo den edo bertan parte hartuko duen arren, jardun soilik humanitarioaren, bere epe laburrerako asmoaren nahitaezko birlegitimazio-prozesuaren buru izan daiteke (termino politikotan eta nazioartean eta laguntza jasotzen duten herrialdeetan egokiak diren lege- eta administrazio-esparru egokitan gauzatua), modu inpartzialean eta independentean jardunez eta bizitzak salbatzeko eta sufrimendua denbora errealean arintzeko premian kontzentratuz, agenda eta kontsiderazio politikoak alde batera utziz” (Stoinova, 2017).

Malgutasuna, *ad hoc* aliantzak, operatibotasuna, balio erantsia, sareen sorkuntza eta abar dira etorkizuneko aliantza horien gakoetako batzuk. Ez dakigu nolakoa izango den 2030ean ekintza humanitarioan parte hartuko duten eragileen mapeatzea, baina badirudi egungoarekin alderatuta nahiko desberdina izango dela.

Bibliografía eta webgune-lotura interesgarriak

ALNAP, 2016. El estado del Sistema humanitario 2015.

<http://www.alnap.org/resource/21536>

Charter4Change. <https://charter4change.org/> Testua gazteleraz:

https://charter4change.files.wordpress.com/2017/08/carta-por-el-cambio_espanol.pdf

Directrices de Oslo: <http://www.unocha.org/sites/dms/Documents/OSLO-GUIDELINES-SPANISH.pdf>

Empresas y acción humanitaria. <https://www.connectingbusiness.org/report-BusinessCase-12-2017>

Humanitarian Futures. Diversos informes sobre la acción humanitaria del futuro.

<http://www.humanitarianfutures.org/>

Humanitarian Outcomes (2015) Global database of humanitarian organisations.

London: Humanitarian Outcomes. www.alnap.org/resource/20772.aspx

IARAN, IRIS, Action Against Hunger, Futuribles, Centre for Humanitarian Leadership The Future of Aid: INGOs in 2030, noviembre 2017, 178 p.

http://futureofaid.iaran.org/The_Future_Of_Aid_INGOs_In_2030.pdf

Instituto de Estudios sobre Conflictos y Acción Humanitaria (IECAH), Médicos Sin Fronteras (MSF) (2017). La acción humanitaria en 2016-2017: usos abusos y desusos del humanitarismo en el mundo actual.

<http://campusiecah.org/www/Jornadas/Informe-IECAH-2017-Baja-RGB.pdf>

IECAH. Las alianzas público privadas en el ámbito humanitario.

<http://iecah.org/index.php/documentos/2539-las-alianzas-publico-privadas-en-el-ambito-humanitario->

Kent, Randolph; Bennett, Christina; Donini, Antonio; Maxwell, Daniel. (2016) Planning from the Future: Is the Humanitarian System Fit for Purpose? <http://www.planningfromthefuture.org/>

Local to global protection (2016): Localisation and locally-led crisis response.

http://www.local2global.info/wp-content/uploads/L2GP_SDC_Lit_Review_LocallyLed_June_2016_final.pdf

OCHA. Global Humanitarian Policy Forum (GHPF), Reaching for the future: Humanitarianism in 2030, <https://www.unocha.org/2017-humanitarian-policy-forum>

Rey Marcos, F. (1998) "Acción humanitaria e intervención: la complejidad del ecosistema humanitario". La factoría, nº 6, Barcelona.

Stoinova, V. (2017) "Emergency gap: cómo cerrar la brecha en la respuesta a las emergencias humanitarias en conflictos", en Instituto de Estudios sobre Conflictos y Acción Humanitaria (IECAH), Médicos Sin Fronteras (MSF). La acción humanitaria en 2016-2017: usos abusos y desusos del humanitarismo en el mundo actual. <http://campusiecah.org/www/Jornadas/Informe-IECAH-2017-Baja-RGB.pdf>

The Grand Bargain – A shared commitment to better serve people in need (2016).

https://reliefweb.int/sites/reliefweb.int/files/resources/Grand_Bargain_final_22_May_FINAL-2.pdf